DEUSTUALDEKO ALDIZKARIA

Prest! KINKA LARRIAN! Info+ 5. or

203 zenbakia
2019 **ekaina**

Prest!

BERBETAN: GORKA EXPOSITO OTXOA S.D. DEUSTOKO KAPITAINA

ERREPORTAJEA: LANGILEAK BORROKAN BARKUA: HEMEN DA KEMEN GRA

TOKIKOM

197-198-199-200-201-202-

Gure babesleak

Babestu Prest!

urtean 25€

Aldizkari hau etxean jaso nahi baduzu bidali zure datuak ondoko helbideetara:

Izen-abizenak .....
Helbidea .....
Telefonoa .....
E-posta .....
Kontu zenbakia (Iban) .....

prestharpide@gmail.com
94 447 10 42
Ramon y Cajal 42 / 48014 - Deustu

203 zenbakia
2019ko ekaina

aurkibidea

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia - Nerea Etxaniz Osa — **Iritzia** — 4

PREST! kinka larrian — **PREST!** — 5

e erreportajea — 6
Langileen borroka

Bizkaiko metalgintzako langileak, erresidentzia eta zaintza-lanetakoak, BilbaoBiziko langileak, Udaleko 010 zerbitzukoak... azken hilabeteotan hamaika dira grebara joan diren sektoreak. Gurean, kiroldegietako langileak eta Domino's Pizzakoak ari dira lan duina borrokatzen eta haiekin hitz egin dugu egoera sakonean ezagutzeko.

Deustu Eskola — **Eskolak** — 10

Deustuko herria 1704ko fogerazioaren argitara — **Behin batean** — 12

Parte hartze handia Erriberako auzo jardunaldietan — **Artikulua** — 14

b berbetan — 16
GORKA EXPOSITO OTXOArekin

Futbol denboraldia amaitu berritan botak eskegitzea erabaki du Gorka Expositok, SD Deustoko kapitainak. Erdilariak bere futbol ibilbide osoa egin du bertan, mailaz maila lehen taldera iritsi arte. Azken urteotako klubaren ibilbideaz eta denboraldi honetako gorabeherez aritu gara.

Erriberako jaiak (1969) — **Irudiak berbetan** — 21

MUSIKA Hemen da Kemen Gra — 24

ARTEA Aire, aire!

PINTXODROMOA La Parra taberna

KULTUR TXOTX Gorka Zozaia eta Mikel Aiartzaguena

harkua bete herba

Prest!

Argitaratzailea:
BLB Komunikazioa Koop. Elk.
Tel: 94 447 10 42
Ramon y Cajal 42
Deustu 48014
bilbokoaldizkariak@gmail.com

Zuzendaria: Jone Gartzia Gerra
Erredakzioa: Nerea Olaziregi, Gaizka Suarez, Laura Freijo, Hekor Ortega, Nerea Cubillo, Uxue Gutierrez, Aitor Sarrionandia-Ibarra, Patxi Gaztelumendi, Olatz Arregi, Mikel Aiartzaguena, Nerea Etxaniz, Lur Mallea, Txema Luzuriaga, Maialen Gago, Jon Intxaurraga
Kolaboratzaileak: Elorri Bertso-Eskola, Deusto ikastetxea, Deustuko Ikastola, Ibarrekolanda BHI, Intxixu Ikastola, San Inazioko eskola, Deustuko Gazte Lokala, Deustuko Jai Batzordea, Errondoko Auzo Etxea, San Inazioko Jai Batzordea
Argazkiak: Iñigo Azkona Bikandi
Publizitatea: Jone Gartzia Gerra
Diseinua: BO5T

Nerea Etxaniz Osa
Petriletik

Ur uherrak

Gezurte garaiotan, ezin errelatoarena aipatu lotsagorritu barik, ez bada ustezko ekidistantziaren onkeria interesatutik. Kontakizunen talkan, trukean, denok errudun egiten gaituen autoflagelazioa, txarrean berdinduta, dena salaketa, susmo txarra eta mesfidantza. Ez dago erraza bizikidetza.

Indarra nork duen dago argi, hori bai. Espainiari ezetza delitu automatikoa da, estatuan ez dago botere-banaketarik ez berme demokratikorik. Gertuko ditugu *nor-nori-nork* mendeku-sistemaren zenbait erakustaldi: katalanen *proces*-a, *Egin-Gara* espoliazioa, Altsasukoak... Ikusteko, baita ere, zer ekarriko duen *Herrira*koen eta presoen abokatuen aurka *Astakeria Nazionalean* irailean astekoa den makroprozesuak. Eta gu, bien biartean, elkarri ipuin-kontari entretenitzeko prest.

Potentzia emozionala omen gara, ezin trebeagoak elkartu eta katarsiak sortzen. Jaiak antolatzen ere ez omen dugu parekorik. Ez dakit, bada, hori guztia folklore hutsa ez ote den. Auskalo. Egunerokoan, nork bereari egiten dio tira, eta gainerakoei, berriz, entzungor. Ez dago dena kontatu beharrik. Egia. Isildutakoak, ordea, esaten denak baino pisu handiagoa eta ñabardura gehiago du sarri. Interpretatzen da zaila.

Ur uherrak bueltan dira
obusak hondartzetan
baloiak gudu-zelaietan
gosea bazterretan.
Udarik onena opa dizuet.

Askatasuna, maitasuna, eta ardo beltza!

Mikel Aiartzaguena Agirrebeitia
Gazte mugimenduko kidea

Betikotzen direnak, sinisten ditugunak, ohitzen garenak

Ipuin batekin natorkizue gaurkoan ere:
“Otso basati izan zen behin euskara. Oihanetik kanpo inoiz egokituko ez zen animalia, plazako, kaleko hizkuntza. Horregatik, boteredunek mespretxatu eta iraindua. Hasi zen, baina, zibilizazioan murgiltzen eta denboraz txakur apal bihurtu da lehengo otso basatia. Bere izate berri honengatik mespretxatua izaten jarraitzen du baina... bilakaera “naturala” omen da euskarak eduki duena. Baina... nork mugatzen du bere izatea? Nor izan daiteke gure hizkuntzak gordetzen duen potentzial guztia kaleratzearen beldur? Kontrako? Honen guztiaren atzean botere hegemonikoak hartutako erabaki poltikoak baldin badaude, hizkuntzarekin batera beronek sortzen dituen herritar eta herria desagerarazteko asmoa dutenak, erraz ulertu beharko genuke honen kontra joatea ere erabaki politiko eraldatzailea dela. Zapalduta gaudenok hartu beharreko erabaki politikoa da, beraz, euskaraz egitea.

Otso basati eta txakur apal izateko potentziala duen animalia bietako bat izatera mugatzen da/dute beti.”

Euskararen harira idatzitako ipuina da hau, aspaldi idatzi nuena. Irakaspenak, baina, badauka zeresan handiagoa. Azken finean, erraz ohitzen gara gizakiok, ohitzen gara prekarietatera, ohitzen gara zapaldu izatera, ohitzen gara galtzera eta irabaztera. Ohitzen gara injustizien aurrean inpotentzia onartzera, eta ohitzen gara, noizean behin, garai berrietan ere gure auzoetako gazte eta ez hain gazteak kartzelan sartzera, prozesu judizialetan juzgatuak izatera.

Eta zer euskara galduko balitz? Jarraituko luke munduak biratzen. Eta zer guztiok euskaraz egingo bagenu? Eta zer egunen baten ez balitzaigu PREST! etxera helduko? Ohituko ginateke agian.

Prest! ALDIZKARIA KOLOKAN

Irakurle hori,

Prest! aldizkaria egoera larrian dago. Aurten dirulaguntza guztiak (Jaurlaritzarena, Foru Aldundia eta Udala) atzeratu dira, eta jaso arte diru gabe gaude. Hori gutxi balitz, oraindik ez digute zehaztu noiz helduko diren eta aurreikuspen arazo larriak ditugu.

Egoerari aurre egiteko hainbat neurri hartu ditugu, tartean, 2019ko babesle kanpaina ekainera aurreratzea. Neurriak, hala ere, ez du arazoa luzerako konponduko, eta laguntza eske gatoz.

Prest! etxean jasotzen duzuenon 14etik batek baino ez du aldizkaria babesten. Dirulaguntza eta publizitate iturrien guztiz menpekoak gara, eta edozein gorabeherak proiektua kolokan jartzen du.

Gaur egungo egoera hil ala bizikoa da eta irakurleei eskatzen dizuegu hilero jasotzen duzuen aldizkaria babestea. Bestela, nekez aterako dugu aurrera PREST! duintasunez, produktuaren, langileen eta lantaldearen kalterako.

Larritasun honen aurrean, zuen guztion ahalegina eskatzen dizuegu, hau da, urtean 25 euroko kuota ordaintzea. Guztion ekarpen xumea funtsezkoa da PREST! argitaratzen jarraitzeko. Zuek barik ez dago PREST! eta horregatik zuengana jotzen dugu laguntza eske.

Ekarpena egiteko, idatzi prestharpide@gmail.com helbidera edo deitu 944 471 042 telefono zenbakira.

Aldez aurretik zure babesa eskertu nahi dizugu, irakurlearen zaren aldetik zuk ere PREST! egiten duzulako.

PREST! aldizkariko lantaldea

SOLDATA IGO ETA GUTXIAGO KOBRATU

Ekainaren lehenean hasi zituzten Bizkaiko Domino's Pizzako langileek lanuzteak prekaritatea salatu eta baldintza duinak eskatzeko asmoz. Handik gutxira, greban parte hartzeagatik lau langile kaleratu dituztela salatu dute, tartean Ibarrekolandako pizzeriako banatzaile bat.

Testua: Prest! **Argazkia:** ELA

Urte berriarekin batera ekarri zuen PSOEren gobernuak lanbide arteko gutxieneko soldataren igoera. Horrek aldaketak ekarri zituen Domino's Pizza katearen langileen kobratzeko eran. Enpresak hitzarmena sinatu zuen UGT eta CCOO sindikatuekin eta, soldata igoera dela-eta, Domino's Pizzako banatzaileek gehiago kobratzen dute orduko, baina banaketa bakoitzeko plusak kenduta.

Batura berria ez da langileen aldekoa izan, askok hilean 100 euro gutxiago kobratzen dutelako orain. Kasurako, 600 euroko soldata batean %16,7ko jaitsiera suposatzen du.

Hori da Iker Fernandez Ibarrekolandako Domino's Pizzako langilearen kasua. Soldata igoera iritsi aurretik 670 euro kobratzen zituen hilean. Banaketa-gehigarriak kendu zizkioten orduko gehiago kobratzearen

truke, eta hilean 550 euro kobratzera igaro zen, ia %18 gutxiago.

Greba eskubidearen urraketa

Egoera salatzeko lanuzteak egin zituzten Bizkaiko Domino's Pizzako langileek ekainaren lehen asteburuan. Jarraian, greban parte hartutako lau langileri kaleratze-gutuna iritsi zitzaien. Ekainaren 5ean jaso zuten, baina maiatzaren 19ko datarekin (lanuzteak izan baino lehen).

ELAren iritzi, enpresak kaleratzeen eta grebaren arteko lotura ezabatu nahi izan zuen era honetan. Kaleratzeko modua "oso larria" izan dela salatu du sindikatuak eta, ondorioz, bidegabeko kaleratzeen aurkako demandak jarriko dituela azaldu du.

Iker Fernandez, Ibarrekolandako Domino's Pizzako banatzailea, era horretan kaleratu zuten. Kontratu mugagabea sinatzeko zorian zegoen, baina lanuzteak izan eta hiru egunera kaleratze-gutuna jaso zuen.

Horrez gain, lehenengo mobilizazio egunetan enpresak hainbat grebalarien postuak ordeztu zituela salatu dute, zenbait kasutan lanera joandako langileak 12 orduz jarraian lan egitera behartuz. Isabel Garcia ELA-Zerbitzuak ataleko ordezkariak ohartarazi du Domino's Pizzako jatetxe batean langile bat 13:00etatik 01:00etara egon zela lanean, greba egiten ari zirenak ordezkatzeko. Dagoeneko ELAk bi salaketa jarri ditu lan ikuskaritzan legez kontrako ordezkapenak direla-eta.

Negoziaketak hutsean

Kaleratutako langileak birkontratatzeaz gain, estatu mailako lan-hitzarmena hobetzea eta prekaritatearen aurkako benetako neurriak hartzea eskatzen dute. Horrela azaldu digu Isabel Garciak langileen egoera: "Ez dute lan-egutegirik, soldatak oso prekarioak dira, legeak baimendutako ordu estrak baino askoz gehiago egiten dituzte eta lan baldintzak kaxkarrak dira".

Domino's Pizza Zena taldeak kudeatzen du, Starbucks, Foster's Hollywood, Burger King eta hainbat enpresa bezala. Garciak esan digun bezala, enpresa ez da sindikatuekin harremanetan jarri oraindik. Bai, ordea, langileekin, "baina langileek jakin badakite hobe dela sindikatuen bitartez negoziatzea", argitu digu.

KIROLDEGIETAKO LANGILEAK HASERRE

"Kirola borrokan" hots egiten dute Bizkaiko kiroldegietako langileek. Egungo kiroldegietako Bizkaiko lan-hitzarmena hobetu ezinik eta "lan baldintza prekarioez gogaituta", mobilizazio eta lanuzteei ekin diete.

Testua: Prest! **Argazkiak:** San Inazioko kiroldegiko langileak eta Ecuador Etxea

Hitzarmena 16 hilabetez negoziatzen aritu ostean, langileek mobilizazioei eta lanuzteei ekitea erabaki zuten maiatza erdialdean, akordiorik ez zutela lortu ikusita. Langileak "nekatuta" daude lanbaldintzak ez direlako aspalditik hobetu. Patronalaren proposamenean ez dute hobekuntzarik atzeman, eta maiatzaren 23an Bilbon egindako manifestazioan iragarri zuten ez dutela sinatuko "berriz kondenatuko gaituen hitzarmenik".

Denera, 2.500 langile inguru daude kirol zelai eta lokalen Bizkaiko hitzarmenaren barruan. Udalek azpikontratatutako enpresentzat egiten dute lan (Bilbao Kirolaken kasuan Guedan enpresarentzako) eta sorosleak, monitoreak, garbitzaileak eta sarbide-kontroleko langileak dira.

Gehienek astean ordu gutxiko kontratua dute eta atxikitako eranskinen bitartez luzatu ohi dute lanaldia. Horrek ezegonkor-

tasun handia dakar, ez baitute astero berdin lan egiten, ez eta kobratzen ere.

Gure iturriek esan digutenez, ikastaroetako monitore zein igerilekuko sorosleek orduko 7,2 euro kobratzen dituzte eta ez zaizkie klaseak prestatzeko behar dituzten orduak kontuak hartzen. Gainera, askok ez omen dute legezko atsedenerako aukerarik (igerilekuko langileek, esaterako), eta beste horrenbestek kiroldegiz kiroldegi ibili behar dute, mugikortasun dietarik gabe.

Langileek salatutakoaren arabera, urteak zeramatzaten lan-hitzarmenean ia aldaketarik izan gabe. Borroka eta mobilizazioetarako ohiturarik ez duen sektorea da kirolarena, non langile gehienak denbora baterako bakarrik dauden, eta horrek zaildu egiten du langileak mobilizatzea.

Hala ere, aurten patronalarekin abiatutako negoziazioek atarramentu onik izango ez zutela ikusita, sindikatuek lanuzteak deitzea erabaki zuten. Harrituta geratu ziren langileen erantzunarekin, batez ere gazteenekin. Borrokarekin jarraitzeko motibatuta eta gogotsu daudela esan digute, euren eskariak bete arte.

Besteak beste, lanorduak eta kontratuak egonkortzea, urteko gehienezko ordu kopurua murriztea, soldatak hobetzea, atsedenak bermatzea, mugikortasun-plusak ezartzea, ikastaroak prestatzeko beharrezko orduak aintzat hartzea eta betetzen dituzten funtzioei dagozkien kontratuak izatea eskatzen dute.

LAB, UGT eta CCOO sindikatuek osatzen dute negoziazio mahaia. ELAk, aldiz, ordezkaritza handiena duen sindikatua izanagatik (%51), foroan parte hartzeari utzi zion, bi sektore hitzarmen egitearen aldekoa delako (bata kiroldegi publikoentzako eta bestea pribatuentzako) eta negoziazioetan izandako desadostasunak direla medio. Hala ere, berriz bat egin du negoziazio mahairekin eta mobilizazioen deialdiak babestu ditu. Ez, ordea, UGT-k, langileen eskariak eginezinak direla iritzita.

Bien bitartean, udalek, enpresa hauen zerbitzua kontratatzen dutenek, "ezikusiarena" egiten jarraitzen dutela salatu dute langileek, eta euren erantzukizuna agerian utzi nahi izan dute.

KULTURARTEKOTASUN EGUNA

Zazpi urte daramatzagu maiatzaren azkenengo barikuan Kulturartekotasun Eguna ospatzen gure eskolan. Egun honetarako gure eskolako familiek euren herrialdeetako jatekoak ekartzen dituzte eta arratsaldez eskola komunitate osoak dastatu egiten ditu elkarrekin.

Testua eta argazkiak:
Deustu eskola

Eusko Jaurlaritzak egindako 2019-2022 Eskola inklusiboa garatzeko esparru plana sustatu duten balioak eta printzipioak txostenak dioenez: "Pertsona guztien hezkuntzarako eskubidea bermatu behar da. Horrenbestez, ekitatean eta justizia sozialean oinarritutako planteamendu etikoaren arabera, hezkuntzak aukera berak eskaini behar ditu, inolako bazterketarik egin gabe (gaitasunak, kultura, etnia, erlijioa, generoa, sexua, etab.), eta desberdintasun ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta pertsonalak eraldatzeko betekizuna du. Gizarteak beti dira askotarikoak; aldatu egiten dira, eta aniztasuna agertzeko modua ere aldatu egiten da. Horregatik, hezkuntza-sistemek erantzun malguak diseinatu behar dituzte, ikaskuntza, lorpen akademikoa eta inklusioa bermatzeko."

Gure eskolan dagoen aniztasuna, 16 amahizkuntza ezberdin, inklusibitatea lantzeko era eta gure bizikidetza positiboa erakutsi nahian, kanpoko hainbat eragile gonbidatu genituen urte luzez egin dugun lana ikusteko: hezkuntzatik, Ana Isabel Ferri Basualdo (Bizkaiko ordezkaria) eta gure eskolako ikuskaria, Jesus Mª Santiago, Bilboko Udaletik, Koldo Narbaiza zinegotzia eta Jone Unzueta Udaleko zuzendaria, Abandoko Berritzegunetik, zuzendaria, Isortze del Valle, eta gure aholkularia, Joseba Goitia, eta amaitzeko Bilboko Koraleko kudeatzailea: Iñigo Alberdi.

Egun honetan familien partaidetza ikaragarria izaten da eta oso harro sentitzen dira euren herrialdeak aintzakotzat hartzen ditugulako. Hori da aurkitu dugun modu hoberena familiak eskolara hurreratzeko.

Egun osoan zehar, ikasleen ekintzak egiten ditugu eta ikasturte bakoitzean hainbat arlo lantzen ditugu: abestiak, mapak, ipuinak, jolasak... Goizean, irakasleek ikasleekin batera urte horretan aukeratutako gaia landu

egiten dugu. Aurten munduko jolasak aukeratu ditugu; Afrikakoak, Asiakoak edota Hego- Amerikakoak landu eta jolastu gara.

Goizean, jolastokia banatu egiten dugu eta ikasle guztiak txandaka jolas guztietan ibiltzen dira irakasleen gidaritzapean.

Eguerdian, eskolako soinketa gelan gure eskolako koroak Bilboko Koraleko Nora Franco irakaslearen gidaritzapean, nazio askotako kantak abestu dizkigu. Ikaragarria da gure koroak lortu duen maila eta oraindik eta ikaragarriagoa gure ikasleen gogoa abesteko. Horrez gain, entzuleen isiltasuna eta arreta ere aipatzekoak dira.

Politena eta ikusgarriena arratsaldeko saioa izaten da. 15:00etan familiek eurek prestatutako jatekoak eskolara ekartzen dituzte, ordurako eskolan jatekoen izenak eta herrialdietako banderak eginda dauzkagu, eta plater bakoitzean ipintzen ditugu. Guraso Elkarteak lan ikaragarria egiten du mahai luzeak jolastokira atera, paper zuriarekin dotoretu eta plater guztiak jartzen izena eta banderarekin.

15:45ean ikasle guztiak aurreko patioan biribiletan ipintzen dira eta Munduko Dantza egiten dute. Ostean, gelaka jartzen dira eta bertoko askari tipikoa jaten dugu: ogia txokolatearekin.

Lan ona saritzeko, eskolako partaide guztiak, ikasle, guraso eta irakasleak, plater dastaketan giro onean egoten gara eta "Jakintsu" Guraso Elkarteak erositako opari bana ematen diegu platera ekarri duten ikasleei.

DEUSTUKO HERRIA 1704KO FOGERAZIOAREN ARGITARA

1704an Bizkaiak bere lehenengo fogerazio osoa (su kopurua) egin zuen, Batzar Nagusiek hala aginduta. Alegia, herri bakoitzak bere barrutiko etxe guztien berri eman zuen. Orduan zergak batu ahal izateko ezinbesteko tresna zen fogerazioa; gaur egun, ostera, herrien gaineko informazio iturri baliotsua da.

Testua: Hektor Ortega

1704ko fogerazioaren gaineko informazioa eman genuen aspaldi baten (PREST! 11. zenbakian). Orduan gurea maizter herria zela nabarmendu genuen, alegia, baserritarren ia %90 errenteroak zirela. Gutxi batzuk baino ez ziren nekazari etxagunak. Auzoen banaketa ere deigarri egin zitzaigun: Madariaga, Uribarri (Done Peri elizatik behera ibaiertzeraino), Goiri (Arangoiti), Miragaia (Ramon y Cajal kalearen goiko zatia), Etxebarri (Ibarrekolanda), Tellaetxe eta Urkitza (gaur egungo San Inazio), Arkotxa (unibertsitatea dagoen lekutik Salberainoko tartea) eta Ogena (Botika Zaharra eta Erribera).

Oraingoan beste kontu batzuk aipatuko ditugu. Izan ere, Batzar Nagusien agindua betez, herriek emandako informazioa herrietan bertan baieztatu zuen Juan Jose Antonio Andonegi lizentziatuaren txostena jorratuko dugu. Deustuan ez ezik, Abandon, Begoñan, Barakaldon, Arrigorriagan (Basauri eta Alonsotegi barne), Zaratamon, Ugaon eta Arrankudiagan egon zen. Eta herriek aitortutakoa zehatza zela ondorioztatu zuen. Horrela, egia zen Deustuan sasoi hartan 128 etxe zeudela. Zehaztu dezagun etxeak zirela, baina denak ez zirela baserriak, aurreko hamarkadetan Ogenan etxe berri batzuk eraiki zituztelako. Herritarrek lursailak eskatzen zizkioten Deustuko Udalari (herri lurrak ziren), bertan etxea eraikitzeko, baita herriak eman ere, urteroko kanon xume baten truke, etxea altxatzeko baldintzarekin. Horrela sortu zen ibai ondoko portu-auzoa.

Albo-herriekin alderatuta, Begoñak eta Abandok baino nabarmen populazio gutxiago zeukan Deustuak: Begoñan 208 etxe zenbatu zituzten, 320 Abandon. Barakaldo ere herri zabala zen eta orduan 214 etxeko zerrenda osatu zuten.

Aurreko mendeko krisialdiak oinatz sakona laga zuen. Herri guztiotan aurkitu zituzten etxea galdutako orubeak ("suelos de casas") eta zerrendetan aipatu zituzten. Deustuan sei ziren. Horietarik lauk ez zeukaten etxeari lotutako ortu, solo edo basorik (beste baserri batzuei atxikita zeuden), baina bik bai. Krisialdia beste datu batek ere erakusten du: bazeuden errenterorik gabeko baserriak. Hori ez da hurrengo urteetan berriro gertatuko. XVIII. mendea hazkunde aroa izan zen, bai demografian baita produkzio ekonomikoan ere.

Herri ondasun joriak

Hala Deustuan nola inguruetako herrietan ezaugarri garrantzitsu bat nabarmendu zuen Andonegi txostengileak: "Herri ondare nahikoa daukate, ezartzen zaizkien zergak eta kontribuzioak ordaintzeko lain, eta hortaz, ez dute ordainketa etxeen artean banatu behar". Herri-lurrak izaten ziren, normalean, herriei diruak ematen zizkietenak (alokatzen zituztelako), baina bestelako ondasunak ere eduki ohi zituzten herriok: etxeak, ibaia zeharkatzeko ontziak, tabernak...

Errekaurti eta Urkitza baserriak Agirre Lehendakariaren etorbidea egin berritan (1945). Argazkia: Txema Luzuriagaren bilduma.

Jakingarri garrantzitsua da, XVIII. mendeak aurrera egin ahala zerga zama handitu egin zelako eta orduan herri ondasun haien emaria ez zen nahikoa izan ordainketa haiek betetzeko. Eta, are okerragoa dena, sektore jakin batzuek presioa areagotu zuten herri ondare joria pribatizatu eta haien eskuetara igaro zedin. Lehenengo gerra karlista amaitu zenean (1839) Deustuak ia ez zeukan herri-ondasunik. Erabateko arpilaketa izan zen.

Azken ohar aipagarria. Andonegik bai Deustuan, bai albo-herrietan, etxeen arteko berdintasuna aipatu zuen, alegia ez zegoela haien artean mailaketa sozialik. Deustuari buruz honela idatzi zuen: “Denak dira berdinak herriari dagozkion kargu eta ohoreak jasotzeko orduan”. Praktikan ez zen zehazki horrela, baina, teorian, Madariagako dorretxeko askazia eta azken baserriko errenteroarenak berdin-berdinak ziren, adibidez, herriko kargudunak izateko orduan.

Kalderapeko
euskal kultur gunea
www.kalderapeko.com
txakur kalea, 1. 48005
bilbo • euskal herria
tfnoa: 94 416 40 99

UDAL HAUTESKUNDEETAN EAJ GARAILE DEUSTUALDEAN

Testua Borja Sarrionandia-Ibarra

Juan Mari Aburtu deustuarrak buru duen EAJk erraz irabazi ditu maiatzaren 26an buruturiko Udal hauteskundeak Deustualdean. PSOE bigarren indarra bilakatu da, EH Bilduren kaltetan, nahiz eta azken honek udal hauteskundeetan inoizko emaitza onena lortu duen. PPren gainbeherak ez du etenik.

EAJ garaile atera da Deustualdean, beste behin ere. 11.511 bozka lortu du, orain dela lau urte baino 1.440 gehiago. Botoen %44,54 eskuratuta, alderdi jeltzalea bost auzotan izan da lehen indarra, Elorrietan (%44,41), Deustuko Doneperiagan (%48,15), San Ignazio – Tellaetxen (%43,39), Ibarrekolandan (%43,67) eta Arangoitin (%30,84), 2015ean bezala. Deustuibarran (%24,15) bigarrena izan da EH Bildutik oso urrun.

Bigarren indarra PSOE bilakatu da, 4.097 boto lortuta, botoen %15,85. Alderdi sozialista Sánchezen bultzadaz baliatu da botoak berreskuratzeko. 2015etik alderatuta 1.110 bozka gehiago eskuratu ditu oraingo honetan. Arangoitin (%27,91), San Ignazio – Tellaetxen (%15,78) eta Ibarrekolandan (%17,41) bigarren indarra izan da. Elorrietan (%14,13) eta Deustuko Doneperiagan (%12,66), aldiz, hirugarrena, EH Bilduren atzetik. Deustuibarran (%4,83) laugarren postuan gelditu da Elkarrekin Podemos-en ostean.

3.892 botoekin EH Bildu hirugarren indarra izan da, botoen %15,06 eskuratuta. Koalizio suberanista ezkertiarrak udal hauteskundeetan inoizko emaitza onena lortu du eta orain dela lau urte baino 423 bozka gehiago lortu du. 2015ean bezala Deustuibarran lehen indarra izan da, botoen %50,24 lortuta. Elorrietan (%17,39) eta Deustuko Doneperiagan (%15,76) bigarren indarra izan da. San Ignazion (%14,93) eta Ibarrekolandan (%12,15) hirugarrena gelditu da. Arangoitin, aldiz, bost botoengatik laugarrena izan da Elkarrekin Podemos-en atzetik, botoen %14,76 eskuratuta.

Ezker Anitza, Ahal Dugu eta Equo alderdiak batzen dituen Elkarrekin Podemos koalizioa laugarren indarra izan da 2.778 botoekin (%10,75), orain dela lau urte Udalberrik jasotako 382 bozka gehiago. Arangoitin (%15,02) eta Deustuibarran (%14,49) hirugarren postuan gelditu da. Gainontzeko auzoetan laugarrenak izan dira.

Eskuin muturreko alderdi politiko espainolek jipoi nabaria jaso dute. PP 1.949 botoekin (%7,54) laugarren indarra izatetik bosgarrena izatera pasatu da 613 bozka galdu ondoren. Lau urteotan botoen %23,92 galdu du eta Deustuibarran 6 boto baino ez du lortu (%2,9). Elorrietan botoen %3,88 eskuratu du. Eskuin muturreko gainontzeko indarrek Ciudadanosek eta Vox-ek botoen %2,13 eta %1,06 baino ez dute jaso, hurrenez hurren. 2015eko sorpresa izan zen Ganemos Bilbao Podemos-etik bereizitako alderdia desagertu da.

Balizko udala

Deustuk udalerria izaten jarraituko balu 21 zinegotziz osatutako Udalbatzarra izango luke. Maiatzaren 26ko emaitzen arabera horrela osatuta egongo litzateke Udalbatza: EAJ 11 zinegotzi (gehiengo absolutua; PSOE 4 (+1); EH Bildu 3 (=); Elkarrekin Podemos 2 (=); PP 1 (-1); eta Ganemos Goazen Bilbao 0 (-1).



artikulua
Auzo jardunaldiak

PARTE HARTZE HANDIA ERRIBERAKO JARDUNALDIETAN

Mimo handiz prestatu zituen Erribera Bizirik plataformak, auzo elkartearekin batera, *Isla, zeren isla?* jardunaldiak aurreko ekainaren 15ean. Goizeko 10:30erako Bizinahi auzo guneko gimnasioak etxe bateko egongela goxoa zirudien. Albo batean, sofa, mahaitxoa, alfonbra, landareak eta argi leuna. Inguruan 50 aulkitik gora eta bazter batean, gosaria.

Rosa Gonzalez eta Eneko Herran auzokideak eta Iñaki Uriarte arkitektoa Master Planari buruzko informazioa zabaltzen hasi orduko, aulkiak betetzen hasi ziren Erriberako auzokide, aditu eta gaiaren inguruko informazioaren bila etorritako hiritarrekin. Beste behin ere, azpimarratu zuten Zorrotzaurreko proiektuaren "gardentasun eza" eta "auzotarren eskaerak eta beharrak erdigunean jarri ordez, espekulazioa bultzatu eta promotore pribatuen errentagarritasunari" lehentasuna ematen diola.

"Ondasun historikoarekiko utzikeria" salatu dute

Besteak beste, agerian utzi zuten Udalak eta proiektua aurrera eramaten ari den Batzorde Kudeatzaileak ondasun historiko eta industrialarekin duten utzikeria.

Mantendu behar ziren hemeretzi eraikinetatik, jadanik bat bota egin dute: Cromoduro enpresaren zaindaria bizi zen baserri neoklasikoa. Iñaki Uriarte arkitektoak argi du zein den beraien politika: "Eraikin horiek zaindu beharrean, hiltzen uzten dituzte, hustuz, bertan etxe gabekoak sartzeko eta horrela iritzi publikoaren aurrean eraisketa justifikatzeko". Vicinay enpresarenak ziren bi garabiekin ere kezkatuta azaldu da Uriarte: "Badirudi apaingarri gisa jarriko dituztela irlaren puntu ezberdinetan eta ez dietela merezi duten balio industriala emango".

Atsedenaldia eta gero, Bilbo Zaharreko bizilagun batek eta Lorenzo Vicario soziologo eta EHUko irakasleak proiektuaren atzean ezkutatzen denaren inguruko hausnarketa egin zuten: "Erriberan gertatzen ari dena eta gertatuko dena beste hainbat tokitan gertatu da eta izen bat du: gentrifikazioa, alegia, klase borroka" azpimarratu zuten. Gentrifikazioa langileen mailako eta diru-sarrera gutxiko auzoetan diru gehiago duten pertsonek higiezinak erosten dituztenean gertatzen den desplazamendu soziokulturala da.

Ferrek, Bilbiko bizilagunak, zuzenean bizi izan du eraldaketa prozesu hori bere auzoan, baldintza txarretan zeuden eraikinak bota ostean bertan bizi ziren familia asko Miribilla auzora eraman zituztenean, babes ofizialeko etxebizitzetara. "Auzoaren identitatea aldatzen saiatu ziren, baina ez dute lortu", dio harro.

Erriberako auzokideek ere argi dute, "makro proiektu eta eredu pribatizatzaileen gainetik, gure auzoa bizirik mantenduko dugu".

Testua:
Nerea Olaziregi
Argazkia:
Erribera Bizirik

uztailean eta abuztuan
astelehenetik ostiralera
08:00 - 15:00

hileko bigarren larunbatetan zabalik
10:00 - 14:00

ZATOZ BISITAN

Euskararen Etxea
Agoitz plaza 1, Bilbo
Metroa: San Ignazio
(Lekeitio irteera)

berbetan

GORKA EXPOSITO OTXOArekin

S.D. Deustoko kapitaina

“Saiatuko naiz hurrengo urtean ez

Testua: Jone Gartzia **Argazkiak:** Iñigo Azkona

jokatzen, baina ez dakit lortuko dudan”

Futbol denboraldia amaitu berritan botak eskegitzea erabaki du Gorka Expositok (Deustu 1993), SD Deustoko kapitainak. Erdilariak bere futbol ibilbide osoa egin du bertan, mailaz maila lehen taldera iritsi arte. Azken urteotako klubaren ibilbideaz eta denboraldi honetako gorabeherez aritu gara Exposito kapitainarekin Etxezuriko berdegunean.

Noiz hasi zinen futbolean jokatzen?

Zazpi-zortzi urte nituenean hasi nintzen Deustuko Ikastolan. Lagunekin bi urte aritu eta Deustuko klubera igaro ginen gehienok.

Ordutik ez duzu taldea aldatu.

Inoiz ez naute talde handi batetik deitu eta, gainera, gurasoek beti esaten zidaten ahal izatekotan hobe zela etxetik gertu jokatzea. SD Deuston gustura ibili naiz betidanik.

“One club man” zara orduan, zelakoak izan dira urte guzti hauek?

15 urte eman ditut Deustuko taldean. Hasieran lagunekin jolasteko denbora bezala hartzen nuen, baina lehenengo taldera igaro nintzenean ikusi nuen kontu serioagoa zela, denbora asko eskaini behar zitzaiola... Hirugarren mailara igo ginenetik, orduan eta denbora gehiago eskaini behar izan diogu futbolari. Azkenean, deustuarra eta kapitaina izanda, zaletasun huts bat baino gehiago, erantzukizun handiko lana izan da.

Ez da oso ohikoa jokalari gazteek maila guztiak talde berean egitea. Bakarra zara Deustun bide hori egiten?

Momentuz bai, SD Deuston ibilbide guztia egin duen bakarra naiz. Gaur egun oso zaila da, batez ere hirugarren mailan. Hona heltzen diren jokalari gehienak Bilbao Athletic, Santutxu, Danok Bat edota Alaves B bezalako talde indartsuetatik datoz.

▷ ▷ SAKONEAN

“Lehen taldean Deustuko jokalariak izateak harmaila indartzen lagundu du”

Emakumeen futbola gorakada handia izaten ari da Euskal Herrian, batez ere zaletasunari dagokionez. Noizko berriz ere Deustun emakumeen taldea?

Duela urte batzuk bazegoen taldea Deustun. Aukera egotekotan, emakumezko taldea ateratzea bultzatu beharko litzateke. Orain arte futbolean emakumeak ez dituzte behar bezala tratatu eta oraindik ere desberdintasun handiak daude. Emakumeek gizonek bezainbeste lan egiten dute eta aitorpen bera merezi dute.

Deustuko zaleak Hirugarren mailako sustsuenak direla diote. Igertzen duzue harmailaren babesa?

Bai, izugarri. Azkenengo bi-hiru urteetan asko nabaritu dugu herriko jendea zelaira etorri dela, gurekin kanpora etorri dela... Haiek ere ordu asko sartzen dituzte eta asko eskertzen dugu haien bultzada. Lehen taldean Deustuko jokalariak izateak harmaila indartzen lagundu du, eta hori oso garrantzitsua da guretzako.

Zer esango zenieke taldekideei?

Klubari eskerrak eman nahi dizkiot nirekin izadako jarreragatik, eta futbolari eman dizkidan lagun eta irakaspen guztiengatik. Futbolak asko lagundu nau bizitzan zehar; hemen ikasitakoa bizitzara eramaten saiatzen naiz, eta alderantziz.

Joan-etorrian batzuetan.

Urte asko daramatzat klubean eta ondo ezagutzen dut ibilbidea, baina jokalari gehienek bi urte inguru baino ez dituzte ematen taldean, eta ez daukate perspektiba bera.

Nolakoa izan da lau urtez herriko futbol taldeko kapitaina izatea?

Harrotasun handiz hartu dut. Kapitaina nintzenez, ni arduratzen nintzen taldearen eta entrenatzailearen arteko komunikazioaz, jokalariei lana eskatzeaz, haien atzetik ibiltzeaz... Horrek denak inplikazio gehiago eskatzen du, baina pozik hartu dut.

Zelako denboraldia izan da hau?

Nahiko luzea egin zaigu. Ez da txarra izan, baina, ‘arrastreak’ direla-eta, beheko mailara ez jaisteko borrokan ibili gara denboraldi osoan. Denbora asko igarotzen dugu elkarrekin eta zenbaitetan tentsioa nabaria izan da gure artean. Hala ere, oso giro ona daukagu, finean, futbolariak izateaz gain, lagunak ere bagarelako.

Zein izan da denboraldirik politena?

Hirugarren mailara igo ginenekoa (2014-2015) eta joan den urtekoa (2017-

2018). Zortzigarren geratu ginen, baina lau jardunaldi faltan laugarren postua jokoan egon zen Sestaoren aurka, hemen, Etxezuriko zelaian. Oso partida polita izan zen eta play-offetako kanporaketan aritzeko aukera izatea berezia izan zen.

Eta zailena?
Nire estreinako denboraldia lehenengo taldean. Ez nengoen ohituta hainbeste ordu entrenatzera eta maila horretako erritmora eta horregatik ez nintzen eroso egon zelaian. Gainera, ez genuen oso denboraldi fina egin eta tentsio nabaria egon zen aldagelan.

Partidarik bereziena?
Hirugarren mailara igo ginenekoa. Azkenengo momentuan, 10 minutu faltan sartu genuen gola. Gainera, Nikok sartu zuen, deustuarra bera ere.

Zelan bizi izan zenuen hirugarren mailara igotzea eta mantentzea?
Deustuko klubarentzat lau urtez Hirugarren mailan egotea opari bat da. Egia esan, hasieran oso zail ikusten nuen hainbeste urte maila mantentzea, baina taldea eta kluba lan izugarria egiten ari dira eta horrek fruituak eman ditu.

Taldea Hirugarren mailan dago, baina beheko mailara jaisteko arriskuan.
(Oharra: Elkarrizketaren ostean jakin zen SD Deustok maila mantentzea lortu zutela) Hirugarren mailatik urtero hiru talde jaisten dira Ohorezko Mailara, eta gu seigarrenak gara behetik hasita. Printzipioz ez ginateke jaitsi beharko, baina aurten 2.B mailatik hiru talde euskaldun jaitsiko direnez Hirugarren mailara, gutako sei jaitsi beharko dira Ohorezko Mailara. Hala ere, gure ligako lehenengo lauek 2.Bra igotzeko playoffa jokatu behar dute, orduan, horietako bat igoz gero, salbatuko ginateke.

Zelan ikusten duzue egoera?
Itxaropena izateko arrazoiak ditugu. Hemengo liga nahiko indartsua da beste batzuekin alderatuta eta baten batek lortu dezake 2B mailara igotzea.

Hori da klubaren maila gorena edo 2Bra igotzeko ametsa duzue?
Gustatuko litzaiguke, noski, baina Deustuko taldearentzat nahiko opari da Hirugarren mailan egotea. Klubaren tamainagatik, diru kontuengatik, jokalari gazteak izateagatik, instalazioengatik... Ondo gaude maila honetan, eta Ohorezko Mailan egongo bagina ere, ez litzateke larria izango. Duela 15 urte klubera iritsi nintzenetik aldaketak nabariak izan dira, askoz talde handiagoa eta indartsuagoa daukagu orain. Horrekin geratzen naiz; Ohorezko Mailan egon, Hirugarren mailan egon edo 2B mailan egon, hori denborak esango du.

15 urteren ostean futbola uztea erabaki duzu. Nolatan?
Orain dela bi urte lanean hasi nintzen eta ordu asko ematen ditut bertan. Futbol zelaian ere ordu asko sartzen ditudanez, apenas daukat niretzako denborarik. Gaztea naiz eta beste plan batzuk probatzea gustatuko litzaidake, beraz, momentuz saiatuko naiz hurrengo urtean ez jokatzen, baina ez dakit lortuko dudan ezta betiko utziko dudan.

Hemendik aurrera zer egingo duzu?
Lehena, udan bidaiatu. Uztaila erdialdean hasten gara entrenatzen eta oso bidaia gutxi egiteko aukera izan dut. Urtean zehar lagunekin egon, neska-lagunarekin denbora pasatu, surfean aritu... Kirola egiten jarraituko dut, oso gogoko dudalako, baina beste era batean.

Zaila izan da erabakia hartzea?
Denboraldia hasi zenean nahiko argi neukan futbola utzi nahi nuela, baina zailena kideei esatea izan zen. Urte asko eman ditut hemen eta inork ez zuen espero nik taldea uztea. Haientzat ere nahiko kolpe handia izan da.

Futbolari lotuta jarraituko duzu?
Ez dut nire burua entrenatzaile ikusten, baina segur aski Etxezurira etorriko naiz partidak ikustera. Finean, taldekideak lagunak ere badira.

“Deustuko klubarentzat lau urtez Hirugarren mailan egotea opari bat da”

IBAIGANE

Hasi dira Ibaigane Ikastetxea eraisten

Astebetean bota dute Ibaigane Ikastetxea zenaren eraikina. Bere lekuan ikasleentzako egoitza eta apartamentu turistikoak hartuko dituen zazpi solairuko eraikina egingo dute. 2014an itxi zuten itunpeko eskola, 38 irakasle eta 280 kalean utziz. Bilbon azken urteotan itxitako beste lau eskola eraberrituko dituzte beste jarduera batera bideratzeko. Otxarkoagan, Lope de Vega eskola ikasle egoitza bihurtuko dute eta Ramon Y Cajal eskolan Udaltegia ireki nahi dute. Begoñako Andra Mari irakasleen eskolan gotzaindegiak Bilbo eta Bizkaiko hainbat sailen egoitzak ezarri nahi ditu, unibertsitateko hezkuntza jarduerak mantenduz.

POLITIKA

Lau Deustuar 11/13 sumarioan auzipetu

Irailaren 16tik aurrera Auzitegi Nazionalean epaituko dituzte euskal presoen eskubideen alde lan egiten zuten 47 lagun. Horien artean lau deustuar daude. Hurrenez hurren, 8, 11 eta 13,5 urteko espetxe eskaria daukate Naia Zuriarrainek, Atxarte Salvadorrek, Eukene Jauregi k eta Roberto Novalek, EPPK eta bake-prozesuan parte hartzen zuten eragileen bitartekari izateagatik, EPPKren abokatu izateagatik eta Herrira elkarteko kide izateagatik. Egoera "bidegabea" salatzeko deustuarrak antolatzen hasi dira, irailaren 14an Bilbon egingo den manifestazioa prestatu eta auzipetuei babesa adierazteko. Besteak beste, txapak eta kamisetak dituzte salgai, eta Erriberan zein Doneperiagan ekitaldiak egin dituzte euren bizilagunak babesteko.

BERTSOLARITZA

Maite Sarasola Bizkaiko txapeldun eskolartekoan

Maiatzaren 25ean izan zen Bizkaiko eskolarteko bertso finala Abadiñon. Txapelketa osoan guztira 38 bertsolarik hartu zuten parte, lau kanporaketan banatuta. Zortzi finalisten artean Sarasolak lortu zuen puntu gehien, eta Juan Mari Areitio bertsolariak jantzi zion txapela. Euskal Herriko Eskolarteko finalera sailkatu ziren buruz burukoa jokatu zuten bertsolari biak, baina Irati Alcantarilla urruñarra izan zen garaile.

Arangoiti, Erribera eta San Inazio jaietan

Ekainaren 21ean eman zioten hasiera Arangoitiko Txapel jaiei. Ekintzaz betetako hamar egunen ostean, ekainaren 30ean egingo dute jaien amaierako sari banaketa eta urteroko txokolatada. Asteburu horretan bertan hasiko dira Erriberako jaiak. Ekainaren 27an txupinazoa jaurti eta 30era arte Txitxardin izango da Erriberako protagonista. Elektrotxarangak, ume eta helduentzako txapelketak, jolasak, bazkariak eta luntxak, kale animazioa eta kontzertu andana izango dira Deustuibarran lau eguneko egitarau betean. Bestalde, San Inazioko bizilagunek uztaila amaieran ospatuko dituzte auzoko jaiak. Hilaren 24an egingo dute kuadrillen jaitsiera jaiak iragartzeko, eta 31an azken traka jaurtiko dute.

Urtea: 1969

Txema Luzuriaga

Erriberako jaiak

Erriberako jaiak ospatuko diren honetan, 1969ko ospakizun horien argazki bat dakarkizuet. Garai hartan auzokide guztiek hartzen zuten parte jaiotan eta Deustuko txoko guztietako lagunak bertaratzen ziren ospakizunetara. Nahiz eta ordurako kanala eginda egon, jendea Deustuko gune ahaztu eta zatitu honetara etortzen zen jaietara.

Tabako-dendako Maria Angeles Zarragak lagatako argazkia.

Segi Deustualdean euskara sustatuz. Eskerrik asko denoi!

YVES ROCHER
FRANCE
Ercilla, 32 Indautxu 94 4703765
Luis Power, 7 Deustu 94 47639 48
H. de Amezaga, 27 Bilbo 94 4437303

Optica Avenida
Agirre Lehendakaria, 147 SAN INAZIO
Tfnoa: 94 475 11 24

ATXURI TABERNA
Luzarra 1
Deustu
946 75 40 17

BREST
kafetegia
Blas de Otero, 5
Tfnoa: 94 447 95 43

Alonso Pertsianak
☎ 656 410 475
Plaza Celestino Mª del Arenal, 12
48015 Deustu-Bilbao
Tel.: 94 600 14 24
alonsoper@euskalnet.net

Urrunago zertarako?
Deustuko Liburudenda
San Pedro Plaza 4

Toki Berri
Taberna
Good vives!
Luzarra, 6 - Deustu
@tokiberritaberna

1924tik Deustun
Tintorería La Flor
Julio Urquijo 3 - Deustu
94 475 18 29
Mantak, edredoiak, ezkontza eta jaunartze jantziak...garbitzen ditugu

artez euskara zerbitzua
Probatu herrizki.eus
ANDROID APP Google play
App Store

Ramon y Cajal, 8 behea
48014 Deustu
tel. 94 475 22 33
matxintxu@aeknet.net
Matxintxu
aek ■ euskaltegia
Matrikula zaitez!

Nailan
Parquetak - Barnizak
Morgan kalea z/g
48014 Deustu - Bilbo
tfno: 94 475 67 84
nailanparquet@euskalnet.net

RONDOKO HORTZ KLINIKA
Iratxe Jimenez Bobadilla
ODONTOLOGO ELKARGOKIDEA ZKIA: 855
Odontologia orokorra eta prebentiboa
Ume eta helduak
Tratamendu estetikoak eta garbiketa
Peridontzia eta protesi kengarriak
Ortodontzia
PADI
OSAKIDETZA
Errondoko z/g, SAN INAZIO
☎ 94 475 5932
E.P.S. 425/97

Bitxidenda
Sabin
Erlojudenda
Rafaela de Ibarra, 6
Tfnoa 94 475 63 16

KM PERSIANAS CERRAMIENTOS
Deitu eta Ikusi!!
PERTSIANAK ETA ITXIDURAK
Araneko, 28 - 48014 Bilbao
TEL. 94.447.70.32
E-MAIL. persianaskm@persianaskm.com
www.persianaskm.com

BIDAURRE
elektrizitate eta margo-lanak
2daurrelan@gmail.com
669 42 76 23

Zer egingo zenuke Prest! aldizkaria salbatzeko?

Javier
Arangoiti

Auzoan presentzia izan, herritarren hurbila izan... hori dena egiten duzue dagoeneko. Babesle berriak lortu beharko lirateke, baina zaila da haiengana iristea.

Guruzne
Deustu

BBK Live eta MTV bezalako ekitaldietan gastatzen duten dirua benetan beharrezkoak diren proiektuetan gastatzeko esango nioke Udalari.

Leire
Arangoiti

Egoera behin eta berriro azaldu, jendea jakinaren gainean egon dadin. Deustuarrei erakutsi behar zaie gertuko informazioa jasotzeko aukera zein garrantzitsua den, balioetsi dezaten.

Libe
Deustu

Auzotarrei egoera ondo azaldu eta bonolaguntzak saldu, 5-10 eurotan. Ekarpen txiki eta puntualekin errazagoa da jendea inplikatzea.

Bego
Deustu

Egungo egoeraren zabalpen handia egin komertzio, eragile eta auzokideen artean.

Urtzi
Deustu

Askok etxean jasotzen dute aldizkaria eta ez dute ordaintzen, baina prest egongo lirateke urtean ekarpen txiki bat egitera. Jende horrengana heldu beharko ginateke.

>> MUSIKA

HEMEN DA KEMEN GRA

Hamar bat lagunek osatzen dute Kemen Gra taldea. Euskarazko kantak abesten dituzte, 'a capella' eta kalitatea bereziki zainduz. Koruaren helburu nagusia euskal errepertorioa ezagutaraztea eta zabaltzea da.

Testua: Prest! **Argazkiak:** Kemen Gra

Kemen Grak, galdutako erronkarieraz "hemen gara" esan nahi du. Indarra duelako eta kemena erakusten duelako aukeratu zuten izena, baina baita galdutako azpieuskalkiaren erabilerak berreskuratu nahi duten kantugintza islatzen duelako.

"Ilusioz beteriko proiektu musikala" da Kemen Gra, "euskara eta musika maite dituen taldea". Taldea osatzen duten kideak joan den urteko Agate Deuna egunean batu ziren lehen aldiz, eta geroztik lan handia egin dute. Euskal egileen lanak ahalik eta kalitate handienean interpretatu nahi dituzte, ahots hutsez.

Horretarako, urtebete daramate igandero entseatzen. Errekaldeko eskolan hasi ziren lehenik, Karmelan gero, eta Done Petri elizan ari dira orain. Pixkanaka-pixkanaka, egindako lanaren fruituak jasotzen hasi dira.

Aurkezpen kontzertu ofiziala iragan den maiatzaren 31n egin zuten Bilboko Berreginen Museoan. Emanaldira Euskeria abesbatza gonbidatu zuten, euskal errepertorioan ibilbide luzea duen taldea. Kemen Grako zenbait kidek bertan abestu dute, eta batzuek jarraitzen dute oraindik ere. "Horregatik, oso polita izan zen haiek gure jaiotzan egotea", azaldu digu Arrate Unzueta Kemen Grako kideak.

Aretoa hasieratik betetzea lortu zuten, eta amaitzean entzuleak zutik jarri zituzten. "Jendeak ez zuen horrelako saioa espero", aitortu digu Unzuetak. Indarberrituta atera ziren aurkezpen emanalditik, Bakion (Bizkaia) eta Kexaan (Araba) emango dituzten kontzertuetarako prest. Aitzitik, aurkezpena baino lehen zenbait kontzertu emanak zituzten: Amurrioko Gabon Kanta Errondan (bigarren geratu ziren) eta Erandioko antzerki eskolan.

Gaur gaurkoz Euskeriaren errepertorioaren bidetik ari dira, eurena osatzen doazen bitartean. Kantu herrikoiak lantzen dituzte batez ere, eta bereziki Alexander Lesbordes eta Jesus Guridiren lanak dituzte atsegin.

Plaza agertokia bezain gustuko dute kantuan aritzeko, baina, azaldu digutenez, interpretazioen kalitatea mantentzeko hobe da bigarrena. Taula gainean hobeto estimatzen dira ahotsen xehetasunak kalean edo tabernetan baino.

http:// sarekada

ganbara.eus

Webgune berritua

Euskaraz ikusgai dauden filmen gordailua da Ganbara, 2016ko udazkenean aurkeztutakoa. Azala aldatu eta bilatzailea berritu dituzte orain, dinamikoagoa eta erabiltzen errazagoa izan dadin. Filtroen bidez, bilaketa zehatzagoak egin daitezke, eta sektoreko profesionalek beren filmografia aurkezteko tresna berria izango dute. Egokitzapen hauen guztien helburua datu-baseari dinamismoa ematea da, honen aniztasuna eta erabilgarritasuna bermatzeko.

---

behategia.eus

Euskal Hedabideen Urtekaria

Euskal Hedabideen Behategia 2018ko urtekaria aurkeztu du. Hogeita hiru egileren hamahiru lan jasotzen ditu liburukiak, "premiazkoak" diren hainbat eztabaidagairekin. Besteak beste, 'Ttap' aldizkariaren nondik norakoak, Euskaraldiaren eragina euskal komunikabideetan, emakumeen presentzia euskal prentsan, tokiko astekarien kalitatea eta euskarazko komunikabideen audientzia izan dituzte aztergai.

---

kulturparkea.eus

Martin Ugalde beka

Zabalik da Martin Ugalde bekarako proiektuak aurkezteko epea. Aurtengo beka deialdiaren gaia Euskal Herria euskal hedabideetan da. Galdera hauek erantzun beharko ditu: "Euskal hedabideek nola irudikatzen dute Euskal Herria? Lurraldea nola izendatzen da? Izendapen horren azpian zein da eremua? Zein dira mugak?" Irailaren 2ra arte aurkeztu daitezke idatzizko zein ikus-entzunezko lanak, eta irabazleak 8.000 euro jasoko ditu proiektua urtebeteko epean garatzeko.

Xabier Calzada da koruaren zuzendaria. Berak kontatu digunez, berria da "mundu honetan". Izan ere, aita betidanik koruan sartuta izan badu ere, bera flautista da. Lagun baten bitartez sartu zen Kemen Gran, aurreko zuzendariak taldea utzi eta berri baten bila sartu baitziren. Uste baino talde finagoa topatu zuen Xabik, probatzera baino hurbildu ez zenak. Harrezkero gustura geratu da Kemen Gran zuzendari.

Taldearen asmoa ez da koru handi bat sortzea, baizik eta talde egonkor bat eratzea eta kantuen kalitatea zaintzea. Ahotsak orekatzeko, soprano, kontralo eta baxu banaren bila ari dira.

28 URTE ZUTIK, ETA AURRERA

Ekaina hasieran ospatu zuen Deustuko Gazte Lokalak bere 28. urteurrena. Hitzaldiak, mahainguruak, zinema, kontzertuak… aste osoko egitarauarekin, huste arriskuaren aurrean proiektua inoiz baino biziago dagoela erakutsi zuten Gazte Lokaleko kideek.

Testua: Asier Robles **Argazkiak:** Deustuko Gazte Lokala

Ekainaren 2an, igandea, hasi ziren Deustuko Gazte Lokaleko 28. urteurrenaren ospakizunen harira antolatutako ekimenak. Hainbat pertsona Gaztetxera gerturatu ziren marianitoetaz eta Al Selektorren musikaz gozatzeko, eskaileretako murala berregintzen zen bitartean.

Asteartean 50 pertsona inguru Deustuko memoria historikoa lantzeko eta guda zibilaren eta faxismoaren aztarnak ezagutzeko ibilbidera batu ziren Borja Sarrionandia idazlearen eskutik.

Asteazkenean Errondoko eta Bizinahi gune autogestionatuen partaideak Deustuko Gazte Lokalera hurbildu ziren haien esperientziak mahainguru batean partekatzeko. Gauean 'Amama' pelikula proiektatu zen. Ostegunean, Marina Urkidik, Irati Sienrak eta Ibai Etxebarriak Bilboko gazte mugimenduaren bilakaerari buruzko mahaingurua dinamizatu zuten. Eta gauean 'Txoringito' berezia egon zen Txoridendan kontzertu akustikoarekin alaitua.

Ostiralean '28 urte zutik!, gaztetxeak aurrera' lelopeko manifestazioak Deustuko kaleak zeharkatu zituen Gazte Lokalean bukatu arte.

Urteurrenari bukaera ederra emateko, ekainaren 8an Deustuko Gazte Eguna antolatu zuten. 10:30etan hasi zen eguna gosaria eta Aski du taldearen kontzertu akustikoarekin. Ondoren, Deustuko hainbat tabernetatik ibili ziren gazteak Fritanga elektrotxarangaren doinuekin batera.

Indarrak berreskuratzeko, 15.30ak aldera bazkaldu zuten Done Petri plazan. Aukera beganoa eta begetarianoa zegoen, eta jaki gehienak km0-ko produktuak izan ziren. Arratsaldean, Karea eta Silices Grizzliez taldeek kontzertua eskaini zuten Gazte Lokalaren oholtzaren gainean, eta azkenik DJ Papirok girotu zuen iluntzea.

Huste arriskuaren aurrean, Gazte Lokala inoiz baino biziago dagoela erakutsi zuten Deustuko gazteek.

AIRE, AIRE!

San Mames Zumarkalea aski ezaguna den arren, bada toki honetan El Zollo izeneko etxarte txiki bat. Toki benetan berezia da eta bertan topa dezakegu Molkris deitzen den marko denda eta Aire galeria.

Testua eta irudiak: Irantzu Yaldebere eta Izaskun Araluzea

Galeriak urtebete eskas du, eta hiru helburu ditu: unibertsitatean lan egiten ari den ikasleen edo hasiberri den jendearen lana ikusaraztea, ibilbide profesional luzea izan duten pertsonen baina egun haien lana erakusteko aukerarik ez dutenei leku bat ematea, eta bestalde, belaunaldiarteko erakusketak egitea.

Apirilean inauguratu zen Dime Dame erakusketa, orain ikusgai dagoena. Ana Arsuaga, Natalia Suarez, Irantzu Yaldebere, Jara Navarlaz, Maider Gonzalo eta Izaskun Araluzea dira erakusketa honetako partaideak.

Sortu zenetik beste bost erakusketa egin dira bertan: Ufo, Sueño, Jose Luis Casado, Urak lur hartu du (gure auzokide den Grazi Calvok parte hartu zuen honetan) eta Tu y yo.

Azken erakusketa honetan argazkiak, marrazkiak, bideo bat eta margolanak daude. Medio ezberdinak erabili dituzte eta ez dago artelan hauek lotzen dituen gai edo diskurtso bat. Artistok adin berdina dute eta denek ikasi dute batera. Bestalde, badira kohesioa mantentzen duten zenbait elementu formal, hala nola, kolore biziak edo argi jokoak eta motiboei dagokienez, pertsonen zein

forma organikoen presentzia nabaria.

Kohesio honek, pertsona ezberdinek egindako lanak lotzen ditu nolabait. Bakoitzak bere kabuz egindakoak bat egiten du albokoarekin. Ez da erraza izen bat edo azalpen bat ematea piezei, elementuen arteko harremanetan dago koxka, kolore eta formetan. Etengabe errepikatzen den urdinean. Erakusketa lana plazara-tzeko aukera bat da. Puntu bat. Amaiera edo aurkezpen posible bat.

EGIN ZAITEZ BAZKIDE
2019 - 2020 denboraldia
www.pabellon6.org
contacto@pabellon6.org
P6
PABELLÓN Nº6
ARTE ESZENIKOAK

La Parra tabernako Manu

PINTXODROMOA

>>SUKALDARITZA

OSPAKIZUNETAN MURGILDUTA

Ramon y Cajal kaleko 32. zenbakira gerturatu gara oraingoan, La Parra tabernara, hain zuzen. Bertan Manu jabearekin egon gara berbetan. Ospakizunetan murgilduta ibili dira azken hilabete honetan, Manuren aitak taberna ireki zuenetik 35 urte bete baitira ekainean.

35. urteurrena

Done Petri eliza atzealdean, Ramon y Cajal kaleko 32.enean topatu dugu Manu, ohi legez La Parra tabernako barraren beste aldean. 1984an bere aitak, izen bereko Manu edo Manolok, ireki zuen tabernari jarraipena ematen dio maitasunosoz.

Ezaguna da La Parra bere terrazagatik, egunero daukan pintxo aukera zabalagatik eta hauen prezio txikiengatik, baina batez ere, tabernako izarrak diren patata tortillengatik. Oraingoan, gainera, ospatzeko beste motibo bat dauka tabernak: bere 35. urteurrena. Manuk azaldu digu taberna inguruko jendea "familia handi bat" bezalakoa dela, hainbeste urteren ondoren denek elkar ezagutzen dutelako.

Manolo, Manuren aita

LA PARRA

LA PARRA TABERNA

Ramon y Cajal 32 – DEUSTU
94 475 12 06
https://www.facebook.com/laparra.bar
Astegunetan: 09:30:00-15:00 / 18:00-itxi arte
Asteburuetan: 18:00-03:00

Ba al zenekien?

Ba al zenekien egun La Parra dagoen lekuan antzina txakolindegi handi bat zegoela? Areago, handik datorkio izena tabernari. Barruan txakolindegiaren marrazki bat daukate, honen omenez. Asko aldatu da Done Petri elizako atzealdea irudi hartatik, baita azken urte hauetan ere. Harro esan digu Manuk Ramon y Cajal eta Luzarra kaleetako "tabernarik zaharrena" dela La Parra.

Presta itzazu Deustualdeko tabernetako pintxo goxoenak zure etxean!
Hementxe jasoko dituzu argibide guztiak. Eta hurrengo hilabeteetan...

ZURE PINTXO ONENAK GUREKIN KONPARTITZEKO

Prest?

AITORTU ZURE SEKRETUAK HEMEN

kultur txotx

Literatura eta musika fresko-freskoa gure aholkularien kupelekoa

GORKA ZOZAIA GARCIA
Erriberako zientzia irakaslea

GAUEKO ZERUAREN JAIA

Heldu berri zaigu uda, Astikan ospatu berri den solstizioak iragartzen duenez, edo egun pare bat geroago, San Juan bezperako suarekin sistematizatu dugun legez. Urteko gaurik laburrenak askorentzat urtaro gogokoenari hasiera eman dio hala, eta hilabeteek hamaika kultur gomendio emateko bide ematen dute: oporretako bidaiak Euskal Herria hobe ezagutzeko baliatu, pasa ezagutza hori han-hemenka biderkatuko diren jairik jai egitera, baita etxetik mugitu gabe eleberriren batean murgilduz, uda garaia egonean dastatzeko proposamenera ere.

Txoko honetatik, baina, beste gomendio bat egin nahiko nuke nik: gaueko zeruari begiratzea. Urteko laburrenak izanagatik, giroak unibertsoari begira egoteko parada ezin hobea eskaintzen du eta datozen egunotan festa polita eskaintzen digu zeruak. Urtero legez, uztaila amaierako Delta Acuaridak eta abuztu erdiko Perseidek zerua izar ihes-korrez beteko dute. Bitartean, Jupiter eta Saturno izango dira protagonista egunotan eta teleskopio sinple batekin horien sateliteak eta eraztuna bera ere ikusi ahalko dira. Ilunabarrean, hegoaldean izango dugu Jupiter eta sortaldean Saturno. Goizaldeko hirurak aldera ezkutatuko da lehena eta goizaldean bigarrena. Uda aurrera joan ahala, mendebalderantz mugitzen joango dira, eta orduan eta geroago irten eta sartuz, alegia.

Erriberako jaiak gainean dira eta nahi izanez gero, izango duzue teleskopio bat eskuragarri bertan lurreko jaiez gain, zerukoez ere gozatzeko... On egin degizuela!

MIKEL AIARTZAGUENA AGIRREBEITIA
Elorri bertso-eskolako kidea

LOTSATI ZINEN TA GAUR TXAPEL BATEN JABE

Doinua: ETAren su etenetik

Ez da makala urtean
zehar lortua duguna
astero bitan lotzeko
behar den seriotasuna
bermatu dugu oraina
bermatu etorkizuna
eta zentroan jarrita
gure batxiko laguna
kendua dugu azkenak
izatearen asuna
gaur da bertso eskolari
zoriontzeko eguna
deustun baitugu bizkaiko
bertsolari txapelduna

Etorri zinen urduri
sartu zinen suabe suabe
zu baino zaharragoekin
errimatzen parez pare
ai Maite! lotsati zinen
ta gaur txapel baten jabe
entrenatzea duzunez
lorpen guzti hauen klabe
humil izatea ondo dau
gomendio bat halare
salto bat eman duzunez
korronte onaren alde
behin hegan hasi zarela
egizu beldurrik gabe

ERRAZENA
MUGIKORRAZ ORDAINTZEA DA

LABORAL Kutxa Pay App-arekin, EROSKETAK ORDAINTZEKO beste modu bat duzu. Segurua, erraza eta kostu gehigarririk gabea. Eguneratu eta hasi orain txartelarekin bezala mugikorrarekin ordaintzen.

LABORAL KUTXA PAY

Deskargatu App-a

LK PAY

LABORAL kutxa

Bada beste modu bat

www.bilbaoeuskaraz.eus

Bilbo Zaharra
EUSKALTEGIA

2019

UDAKO IKASTAROAK

UZTAILA, ABUZTUA ETA IRAILA
JULIO, AGOSTO Y SEPTIEMBRE

IKASTARO TRINKOAK
EGUNEKO BARNETEGIA BILBON
AUTOIKASKUNTZA
MINTZAMENA
MAILA GUZTIAK

Telefonoa:
94 415 82 92

www.
bilbozaharra.eus

DIRU-LAGUNTZAK ETA DESKONTUAK SUBVENCIONES Y DESCUENTOS
EUSKALTEGIA@BILBOZAHARRA.EUS. **CORREO KALEA 8, 1. EZKERRA. 48005 BILBAO.**